

EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, lehiaketarako deia egiteko dena UPV/EHUko karrerako funtzionarioentzat gordetako teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuak betetzeko.

Euskal administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanpostuak lehiaketaren bidez eta izendapen askearen bidez hornitu behar dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen arabera (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, 94. artikulua).

Lege bereko 97. artikuluan eta hurrengoetan lehiaketari dagokiona arautzen da, eta bertako 4. atalean esaten denez, "Euskal administrazio publikoetan sartzeko hautaketa prozesuetarako deialdiak egin baino lehen, eta bakoitzaren enplegu publikoa antolatzeko planak horri buruz dioenaren kontra jo gabe, euskal administrazio publikoek lekualdatze lehiaketarako deia egingo dute, lege honen 98. artikuluan aurreikusitako baldintzetan".

Bestalde, 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak, II. kapituluan garatzen du lanpostuak lehiaketaren bidez betetzeko prozedura.

Deialdi honen xedea da UPV/EHUko karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden eta aurrekontua esleitu duten TEKAZELen lanpostu hutsak betetzea. Lehiaketaren bidez bete behar dira, UPV/EHUko lanpostuen zerrendan ezarritakoaren arabera, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

Eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta haren gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena, 2025eko otsailaren 19ko EHAA), honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa: Lehiaketarako deia egitea ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren lanpostu hutsak betetzeko, bai eta lanpostu horiek esleitu ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko ere.

Bigarrena: Onartzea aipatutako lehiaketako oinarriak.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua jar dakioke gerenteari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Epeak hasiko dira kontatzen ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

Javier Varona Guarás

Euskal Herriko Unibertsitateko gerentea

OINARRIAK, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KARRERA KO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETA KO TEKNIKARIEN ETA KUDEAKETA KO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETA KO LANGILEEN LANPOSTU HUTSAK BETETZE KO LEHIAKETARENAK

1.- LEHIAKETAN PARTE HARTZE KO BALDINTZAK

1.1.- Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Herriko Unibertsitateko karrerako funtzionarioak diren teknikariek eta kudeaketa ko eta administrazio eta zerbitzuetako langileek, baldin eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo Euskal Enplegu Publikoaren Legean aurreikusitako eszedentzia egoeraren batean badaude, edo beste administrazio publiko batzuetan lanean edo eginkizun gabetze ez-irmoan, betiere egoera horietarako ezarritako denbora bete badute.

Horretaz gain, lehiaketan parte hartze ko beharrezkoa izango da oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzea, bai eta lanpostuen zerrendaren arabera lanpostu bakoitzerako, bere talde eta eskala kontuan hartuta, bete beharreko baldintzak ere.

1.2.- Lehiaketak bi fase izango ditu: lehenengoan, I. eranskineko lanpostuak eskainiko dira, eta, bigarrenetan, berriz, lehen fasean egindako esleipenen ondorioz hutsik geratu diren lanpostuak eskainiko dira. Bigarren bueltan, bakarrik parte hartu ahal izango dute lehenengo fasean parte hartu ez dutenek edo, nahiz eta parte hartu, lanposturik lortu ez dutenek.

1.3.- Parte hartze ko baldintzak eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta prozedura osoan zehar eutsi beharko zaie, esleitutako lanpostuaren jabetza hartu arte.

Baldintzak bete ezean, ezin izango da jabetzan hartu esleitutako lanpostua.

1.4.- Ezin izango dute lehiaketan parte hartu:

1.4.1.- Aurreko bi urteetan lehiaketa bidez lanposturen bat jabetzan hartu duten funtzionarioek, edozein dela ere jatorrizko administrazioa eta edo kidegoa. Denbora muga hori ez da kontuan hartuko funtzionarioak galdu badu lehiaketa bidez lortutako lanpostua, bertatik mugiarazi dutelako edo lanpostu hori desagertu egin delako.

1.4.2.- Eginkizun gabetze irmoan dauden funtzionarioek, egoera horrek dirauen bitartean.

1.4.3.- Norberaren interesagatik edo familia elkartu nahi izateagatik borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, baldin eta lanera bueltatzeko zehaztutako gutxieneko denbora bete ez badute.

1.4.4. Hautaketa-prozesu bat gainditzeagatik edo funtzionario bihurtzeko prozesu baten ondorioz sartu berri diren funtzionarioek ezin izango dute parte hartu lekualdatze-lehiaketa hauetan: dagokion prozesuan esleitutako destinoaz jabetzeko egunaz geroko bi urteen barruan deitutakoetan.

1.5.- Diziplina espediente baten ondorioz lekuz aldatuta dagoen langileak ezin izango du eskatu jatorrizko udalerrian dagoen lanposturik, zehapenak dirauen bitartean.

1.6.- Oinarri hauetako 1.1 atalean aipatutako karrerako funtzionarioek nahitaez hartu beharko dute parte lehiaketa honetan, baldin eta UPV/EHUko lanpostu bati behin-behineko atxikita badaude, eta lehenengo fasean lanposturik lortu ezean, bigarrenean hartu beharko dute parte.

Lehiaketan parte hartu ez dutenak, edo lanposturik lortu ez dutenak ez lehenengo fasean ez bigarrenean, behin-behineko atxikiko zaizkie lehiaketa ebatzi ondoren hutsik geratu diren lanpostuei.

Lehenengo eta behin, lehiaketan parte hartuta lanposturik lortu ez dutenak atxikiko dira, eta, ondoren, lehiaketan parte hartu ez dutenak. Bi kasuetan UPV/EHUko antzinatasuna izango da atxikipena egiteko irizpidea. Berdinketarik egonez gero, hautsiko da gainontzeko merezimenduetan lortutako puntuazioaren arabera, merezimenduen hurrenkerari jarraituz .

2.- MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

2.1.- Erreferentziako data.

Merezimenduak baloratzeko erreferentziatzat hartuko den eguna eskariak aurkezteko azken eguna izango da.

2.2.- Gehienez lortu daitekeen puntuazioa.

Lehiaketa honetan gehienez ere 30 puntu lor daitezke, euskaragatik lor daitezkeenak kontatu gabe. Lanpostu bat lortu ahal izateko, gutxien dela 3 puntu lortu beharko dira.

2.3.- Baloratuko diren merezimenduak.

2.3.1.-Antzintasuna (gehienez, 10 puntu).

Administrazio publikoetan talde eta eskala berean egindako urte oso bakoitzeko, 0,5 puntu lortuko dira; gehienez 10 puntu.

2.3.2. Finkatutako gradu pertsonala (gehienez 6 puntu).

Lortu nahi den lanpostuaren taldean eta eskalan finkatutako gradu pertsonala izateagatik gehienez 6 puntu lortuko dira:

- Gradu pertsonala eskatutako lanpostuaren maila baino handiagoa bada: 6 puntu
- Gradu pertsonala eta eskatutako lanpostuaren maila berberak badira: 5 puntu
- Gradu pertsonala eskatutako lanpostuaren maila baino maila bat txikiagoa bada: 4 puntu
- Gradu pertsonala eskatutako lanpostuaren maila baino bi maila txikiagoa bada: 3 puntu
- Gradu pertsonala eskatutako lanpostuaren maila baino hiru maila txikiagoa bada: 2 puntu

2.3.3.- Esperientzia espezifiko (gehienez 7 puntu).

a) Lortu nahi den lanpostuak LPZn sartzeko baldintza espezifiko bat ezarrita badu, hau da, graduko titulazio jakin bat edo baliokidea izatea, titulazio-betekizun espezifiko bera ezarrita duen lanpostu baten titular gisa lan egindako denbora ere baloratuko da. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko 10 urteetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,066 puntu lortuko dira. Atal honetan gehienez 4 puntu eman ahal izango dira.

b) Eskuratu nahi den lanpostuaren karrerako funtzionario titular gisa egindako lanagatik, 0,025 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 3 puntu. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko 10 urteetan lan egindako aldiak bakarrik zenbatuko dira.

2.3.3. atal honetan aipatzen diren zerbitzuen balorazioa egiteko kalkulatu da aldi bakoitzean zenbat hilabete lan egin diren eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte; hilabetetik beherako zatiak batu egingo dira, eta 30 egun naturaleko multzo bakoitza hilabetetzat joko da.

2.3.1, 2.3.2 eta 2.3.3. ataletako merezimenduei irizpide hauek aplikatuko zaizkie:

Ondorio horietarako, bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere baloratuko dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina betez (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, 21.1 c) artikulua), esperientzia profesional gisa baloratuko dira hautagaiak senideak zaintzeagatik edo genero indarkeriagatik eszedentzian egondako denbora, amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko murrizketak edo baimenak hartuta egondako denbora, eta emakume enplegatu publikoak genero indarkeriagatik baimena hartuta egondako denbora.

Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetan eta euskara ikasten emandako denbora zerbitzu aktiboan emandako denboratzat hartuko da, bai eta norberaren kontuetarako baimenarekin, aldi baterako ezintasunean eta pareko egoeretan emandakoa ere.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65.2.2 artikulua arabera, lanpostu bat zerbitzu betekizunetan betetzea ez da merezimendua izango lanpostu hori behin betiko eskuratzeko. Hori dela eta, lanpostu batean zerbitzu betekizunetan emandako denbora norberaren jabetzako lanpostuan emandako denbora gisa zenbatuko da.

2.3.4.- Titulu akademikoak, prestakuntza ikastaroak eta hizkuntzak. (gehienez 7 puntu).

Lau atal horien bidez, guztira, 7 puntu lortu ahal izango dira irizpide hauen arabera:

2.3.4.1.- Titulazio akademikoak.

Bete nahi den lanpostuarekin zerikusia duten titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira, 2 punturekin gehienez ere, baina bakarrik norberaren jatorrizko

taldean sartzeko eskatutako titulazioak ez direnean, eta, betiere, horren maila akademiko berekoak edo goragokoak direnean.

Ondorio horietarako, honakoak baino ez dira kontuan hartuko:

- A, A/B eta B taldeak: a), b), c), d) eta e) ataletakoak.
- B/C, C, C/D eta D taldeak: c), d), f) eta g) ataletakoak.
- D/E eta E taldeak: f), g) eta h) ataletakoak.

Merezimendu hau honako irizpide honen arabera baloratuko da:

- a) Doktore titulua: 2 puntu.
- b) Unibertsitateko masterraren titulu ofiziala, Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluaren Erregistroan jasoak; edo ikasketa aurreratuen diploma; edo ikertzeko gaitasun titulua: 0,50 puntu tituluko.
- c) Lizentziatu, graduatu, arkitekto edo ingeniari titulua: 1,75 puntu tituluko.
- d) Diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulua edo baliokidea: 1,5 puntu tituluko.
- e) Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, 450 ordu edo gehiagokoa, edo gutxieneko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopurua duena: 0,25 puntu tituluko.
- f) Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua edo LHII: puntu 1,25 tituluko.
- g) Batxilergoko titulua (LOE edo LOGSE planekoa), Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko titulua, Lanbide Heziketako teknikari titulua edo baliokidea: 0,75 puntu tituluko.
- h) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, eskola graduatua, Oinarrizko Batxilergoa edo baliokidea: 0,5 puntu tituluko.

Titulazio talde batera baino gehiagotara irekita dauden lanpostuen kasuan, beheragoko taldeko lehiakideari ez zaio merezimendutzat hartuko goragoko kidego edo eskalara sartzeko eskatzen den titulu ofiziala, non eta lehiakide guztiak ez diren beheko taldetik lehiatzen.

Ez dira baloratuko alegatutako edo merezimendu bezala aurkeztutako goragoko titulua lortzeko beharrezko diren tituluak; salbuespena dira b) eta e) ataletan zehaztutako tituluak.

Tituluak baliokidetzat hartuko dira baliokidetasuna arlo profesionaleko ondorioetarako denean, baliokidetasunei buruz unean-unean aplikatu beharreko araudiari jarraituz.

2.3.4.2.-Prestakuntza ikastaroak:

Gehienez ere 2 puntu emango dira UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntza Kabineteak antolatutako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak gaingituta izateagatik, bai eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo unibertsitate publikoek antolatutako edo homologatutako beste edozein ikastaro gaingituta izateagatik ere.

Azken 10 urteetan egindako ikastaroak baino ez dira kontuan hartuko, eta gutxienez 8 orduko iraupena izan beharko dute, eta lotura zuzena eskuratu nahi den lanpostuaren berezko ezagutza, funtzio edo zereginekin. Baremo honen arabera puntuatuko dira:

- 8 eta 20 ordu bitarteko ikastaroak: 0,250 puntu ikastaroko.
- 21 eta 40 ordu bitarteko ikastaroak: 0,5 puntu ikastaroko.
- 41 eta 80 ordu bitarteko ikastaroak: 1,25 puntu ikastaroko.
- 80 ordutik gorako ikastaroak: 1,5 puntu ikastaroko.

Iraupena kreditutan adierazten den kasuetan, kreditu bakoitzeko 10 ordu zenbatuko dira, beste zehaztapenik ez dagoenean.

ECTS kredituak adierazten badira, kreditu bakoitzeko 25 ordu zenbatuko dira.

Egiaztagirietan, ordu edo kreditu kopurua zehaztu beharko da; bestela, ez dira baloratuko.

Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro beraren edizio desberdinak aurkezten badira, bakarra baloratuko da, hau da, ordu gehienekoa.

Ez dira prestakuntza ikastaro gisa baloratuko profesionaltasun ziurtagiriak eta gaitasun bakar baten egiaztapen partzialak.

2.3.4.3.- Berdintasunaren arloko prestakuntza ikastaroak.

UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Azterlan, Plangintza eta Prestakuntza Kabineteak antolatutako berdintasun ikastaroengatik 0,04 puntu emango dira prestakuntza ordu bakoitzeko, gehienez puntu 1.

2.3.4.4.- Atzerriko hizkuntzak.

Atal honetan ingeleseko, frantseseko eta alemaneko tituluak/ziurtagiriak baloratuko dira, betiere, hizkuntza hori ez bada ezinbestekoa lanpostua betetzeko.

Atal honetan gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango da, irizpide honi jarraituz (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri hartuta):

- B1 maila: 0,25 puntu.
- B2 maila: 0,75 puntu.
- C1 maila: puntu 1.
- C2 maila: puntu 2.

Balorazioa egiteko kontuan hartuko dira UPV/EHUko baliokidetasun taulak, jasota daudenak Hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunei buruzko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakian, zeina eguneratu baitzen Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez. Era berean, CRUEk baliokidetasun tauletan ezarritako gomendioak ere hartuko dira aintzat.

2.3.5. Euskara.

2.3.5.1.- Derrigortasun data igarota duten lanpostuetarako, ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, eta, beraz, euskara jakitea ez da inola ere merezimendu gisa baloratuko.

Gainerako lanpostuetarako, euskara merezimendu gisa baloratzeko, lortu nahi den lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna hartuko da kontuan, eta beherago agertzen den baremoaren arabera baloratuko da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Derrigortasun data gainditu gabe daukaten lanpostuetarako lehiatuz gero, euskara merezimendua izango da, puntuazio honen arabera baloratua:

- a) 1. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - a.1) 1. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 3 puntu

- b) 2. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - b.1) 1. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 2,5 puntu.
 - b. 2) 2. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 3 puntu.

- c) 3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - c.1) 1. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 2,5 puntu.
 - c. 2) 2. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 3 puntu.
 - c. 3) 3. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 4,5 puntu.

- d) 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - d.1.- 1. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 2,5 puntu.
 - d.2.- 2. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 3 puntu.
 - d.3.- 3. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 4,5 puntu.
 - d.4.- 4. hizkuntza eskakizuna izateagatik: 6 puntu.

2.3.5.2.- C2 hizkuntza eskakizuna esleituta duten eta derrigortasun data igarota duten lanpostuak betetzeko prozesuetan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAREN 37.4 artikulua araberak, hautagaietako batek ere ez badu egiaztatzen eskakizun hori, lanpostu horri C1 hizkuntza eskakizuna aplikatuko zaio, deialdi horretarako baino ez.

3.- EPAIMAHAIA

3.1.- Epaimahaia bakarra izango da eta kide kopuru bakoitz osatua, gutxienez hiru; kideetako bat batzordeburua izango da eta bestea, idazkaria.

Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua orekatua izan beharko da, salbu eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean aurreikusitako salbuespenetan (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, 3. art., 10. apartatua).

Epaimahaiaren osaera eskariak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean argitaratuko da, 11. oinarrian zehaztutakoari jarraituz

3.2.- Epaimahaiko kide guztiak karrerako funtzionario izan beharko dira, eta lehiaketako lanpostuak betetzeko eskatzen den titulazio talde bereko edo goragoko kidego edo eskalakoak. Aholkulariak izendatu ahal izango dira epaimahaiak eskatuz gero; ahotsa izango dute, baina ez botorik.

3.3.- Epaimahaiaren eginkizuna izango da lehiakideek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea, merezimenduak baloratzea, egoki izanez gero deialdia egin duen organoari lanpostuak esleitzeko proposamena egitea, eta, oro har, oinarri hauek bete egiten direla bermatzea.

3.4.- Epaimahaiak erabateko independentzia izango du, diskrezionalitate tekniko eta objektibitatez egingo du lan, eta egiten dituen proposamenak lotesleak izango dira UPV/EHUko gerentearentzat.

Diskrezionalitate teknikoa gorabehera, erabakiak arrazoitu egin beharko ditu, arauak eta oinarriak betetzeko. Epaimahaiak, bere jardunean, beteko ditu: oinarri hauek; UPV/EHUko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena eta 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea.

Hautaketa prozesu orotan zaindu beharreko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen alde (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa, 70. art.), epaimahaiaren deliberazioak isilpean gordeko dira. Era berean, epaimahaiak hartutako erabakiak isilpean gorde beharko dira, kasuan kasuko prozeduraren bidez argitara ematen diren arte.

3.5.- Epaimahaiak eskumena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko, arauetan egon daitezkeen hutsuneak betetze aldera eta oinarriak aplikatzean sor daitezkeen kontraesanak argitze aldera.

3.6.- Epaimahaiko buruak deia eginda, epaimahaia osatzeko bilera egingo da. Horretarako, bertan egon beharko dira bai epaimahaiko burua eta bai idazkaria (edo horien ordezkariak) edo epaimahaiko kideen erdiak, gutxienez.

Epaimahaia balioz aritzeko, behin eratuta, aurreko paragrafoan aipatutako kideak egon beharko dira gutxienez bileretan. Dena dela, beharrezko ikusten duen aholkularitza eta materiala izan ahalko du epaimahaiak.

Lehiaketa ondo egin dadin beharrezkoak izan daitezkeen erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak bileretan.

3.7. Epaimahakideek konpentsazio ekonomikorik izatekotan, aplikatuko da UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2024 otsailaren 22ko Erabakia, UPV/EHUko zerbitzuen ordainei buruzko zehaztapen berriak ezartzea onartzeko dena, zeinak 2023ko martxoaren 27ko Erabakia eguneratu zuen; era berean, aplikatuko da

UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektorearen eta Gerentearen 2024ko otsailaren 23ko Erabakia, UPV/EHUko zerbitzuengatiko eta protokolo eta ordezkaritza gastuengatiko ordainen arloko zehaztapenei buruzkoa.

3.8. Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko Atala, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

4.- ESKARIAK AURKEZTEA ETA ONARTZEA

4.1.- Eskariak UPV/EHUko gerenteari zuzenduko zaizkio eta hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, ebazpen honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

4.2.- Onartuak izateko, hautagaiek eskariaren derrigorreko atal guztiak bete beharko dituzte. Eskarian adierazi beharko dute lehenengo oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta, bete ere, eskariak aurkezteko epea amaitzen den datarako.

4.3.- Eskarian nahi beste plaza huts eska daitezke, norbere lehentasunaren arabera sailkatuta, eta, betiere, lanpostuotarako baldintzak betetzen badira. Behar bezala identifikatu gabeko lanpostuetarako eskariak ez dira hartuko kontuan.

4.4.- Eskariarekin batera, hautagaiek aurkeztu beharko dituzte alegatutako merezimenduak, eta, horrela badagokio, merezimenduon egiaztagiria; era berean, lanpostua betetzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeak agiriak ere aurkeztuko dituzte. Hala ere, eskatzaileek ez dute agiririk aurkeztu beharko baldin eta jakinarazten badute alegatutakoa Pertsonaleko Gerenteordetzaren esku dagoela.

Eskariak eredu ofizial eta arautuan aurkeztuko dira, Langileen Atarian egongo den eskari orria betez eta gordez. Aplikazioak erregistro zenbaki bat sortuko du eskari bakoitzerako. Eskatzaileak bere eskaria kontsultatu ahal izango du "Nire eskariak" atalean.

Era berean, lehiaketan parte hartzeko baldintzak bete bai, baina Langileen Atarian sartzerik ez daukatenek eskaria aurkeztu ahal izango dute Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean horretarako onartzen diren beste tokietan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4 a art.).

4.5.- Desgaitasunen bat daukaten langileek hala adierazi beharko dute eskarian. Eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion ziurtagiria ofiziala aurkeztu beharko du, eta behar dituen egokitzapenen berri ematen duen txostena. Dokumentu hori onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen aurkeztu beharko da, kasuan kasuko epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan. Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4.2 art.), hau da, administrazioako organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

4.6.-Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, ezin ezingo da egin aldaketarik aurkeztutako eskarietan.

5.- MEREZIMENDUAK ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

5.1.- Irizpide orokorrak.

5.1.1.- Eskariak aurkezteko epean egiaztatu beharko dira baldintza eta merezimendu guztiak. Prozedura honen helburuetarako, langileen erregistroan jasota dauden merezimendu guztiak, ofizioz baloratuko dira. Beraz, ez da beharrezkoa izango alegatutako merezimenduen agiri bidezko justifikaziorik aurkeztea, dagoeneko langileen erregistro horretan badaude.

5.1.2.- Lehiaketan parte hartzen dutenek langileen erregistroan jasota ez dauden merezimenduak eta baldintzak baino ez dituzte egiaztatu beharko eskariak egiteko epean.

5.1.3.- Langileen erregistroan jasota dauden merezimendu eta agiriak Langileen Atarian ikus daitezke.

5.2.- Antzinasuna.

UPV/EHUko antzinasuna ofizioz hartuko da kontuan, eta, beraz, ez da egiaztatu beharko. Nahikoa izango da merezimendu gisa alegatzea.

Beste administrazio publiko batzuetan egindako lana ez badago langileen erregistroan jasota, kasuan kasuko administrazioan langileen arloan eskumena daukan organoak egindako agiriaren bidez egiaztatu beharko da.

5.3.- Gradu pertsonala.

UPV/EHUa aitortutako gradu pertsonala ofizioz hartuko da kontuan, eta, beraz, ez da egiaztatu beharko. Nahikoa izango da merezimendu gisa alegatzea.

Beste administrazio publiko batzuetan aitortutako gradu pertsonala ez badago langileen erregistroan jasota, kasuan kasuko administrazioan langileen arloan eskumena daukan organoak egindako agiriaren bidez egiaztatu beharko da.

5.4.-- Titulu akademikoak, prestakuntza ikastaroak eta hizkuntzak.

Tituluak alegatu eta egiaztatu egin beharko dira. Egiaztatzeko, tituluaren kopia edo titulua eskuratzeko tasak ordaindu izanaren ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko da.

Ikastaroak alegatu eta tituluaren kopiaren bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta UPV/EHUko AZPko Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabineteak antolatutako ikastaroak badira, horiek ofizioz hartuko baitira kontuan, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango interesdunak horiek egiaztatzea, kasu honetan nahikoa izango da merezimendu gisa alegatzea.

Atzerriko hizkuntzen ezagutza alegatu eta egiaztatu egin beharko da kasuan kasuko titulu edo ziurtagiriaz. Balorazioa egiteko kontuan hartuko dira UPV/EHUko baliokidetasun taulak, jasota daudenak Hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunei buruzko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakian, zeina eguneratu baitzen Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez. Era berean, CRUEk baliokidetasun tauletan ezarritako gomendioak ere hartuko dira aintzat.

5.5.- Euskara.

Ofizioz hartuko dira kontuan UPV/EHUko Pertsonaleko Zerbitzuaren informazioaren arabera egiaztatuta dauden hizkuntza eskakizunak. Nahikoa izango da alegatzea.

Pertsonaleko Zerbitzuan jasota ez dauden hizkuntza eskakizunak alegatu egin beharko dira, eta kasuan kasuko erakunde ofizialak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu.

Euskarazko titulu eta ziurtagirien baliokidetasunak araututa daude azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta

ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena), zeina uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez eguneratu zen.

5.6.- Merezimenduetan eta eskatutako baldintzetan egindako okerrak zuzentzea.

Edozein unetan eskatu ahal izango zaizkio lehiakideari argibideak edo dokumentu gehiago aurkezteko, beharrezkotzat joz gero baldintzak betetzen direla egiaztatzeko edo alegatutako merezimenduak baloratzeko. Horrelakoetan, epaimahaiak hamar egun balioduneko epea emango du eskatutako informazioa osatzeko.

6.- ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAA

Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, UPV/EHUko Gerentziak epaimahaiko buruari bidaliko dizkio eskariak eta dokumentazioa. Bestalde, aldez aurretik, agiriak aztertu eta baldintzak bete egiten direla egiaztatuko du.

Epaimahaiak, egoki izanez gero, berretsi egingo du baldintzak bete egiten direla, eta lanpostu bakoitzerako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda osatuko du. Hamaikagarren oinarrian zehaztutako tokian argitaratuko ditu zerrendak eta 5 egun balioduneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, epaimahaiak ebatzi egingo ditu eta lanpostu bakoitzerako onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak osatu eta 11. oinarrian zehaztutako tokietan argitaratuko ditu.

7.- MEREZIMENDUAK BALORATZEA ETA PUNTUAZIOAREN ARABERAKO ZERRENDAA. PARTE HARTZEARI UKO EGITEA

7.1.- Epaimahaiak merezimenduak baloratuko ditu 2. oinarrian zehaztutakoari jarraituz; merezimenduetan lortutako puntuen arabera behin-behineko zerrenda osatuko du eta 11. oinarrian adierazitako lekuan argitaratu. Era berean, 10 egun balioduneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko.

7.2.- Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, epaimahaiak ebatzi egingo ditu eta puntuen arabera behin betiko zerrendak osatu eta 11. oinarrian zehaztutako tokian argitaratuko ditu.

7.3.- Eskatzaileek uko egin ahalko diote lehiaketan parte hartzen jarraitzeari, baina, uko ekitekotan, behin-behineko esleipenak egin aurretik egingo dute. Uko egiteko eskaria idatziz aurkeztu beharko zaio gerenteari erregistro bidez.

8.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO LEHENTASUNEN HURRENKERA

8.1.- Lehentasunerako eskubideak:

- a) Desgaitasuna legez aitortuta daukaten UPV/EHUko karreko funtzionarioek lehentasun osoa izango dute eurek eskatutako udalerrian eta eurek eskatutako lanpostua esleitzeko. Lehentasun hori izateko, baina, desgaitasuna duen pertsonak joan-etorrietarako arazoak izan behar ditu eta hori horrela dela erabaki beharko du epaimahaiak, kontuan izanda unibertsitate honetako Prebentzio Zerbitzuak egindako txostena. Era berean, eskubide hau baliatzeko, lehiakidea ezin izango da izan lanpostu bateko titularra eskatu duen udalerrian. Bestalde, lehentasun eskubide hori bakarrik gauzatu ahal izango du bere sailkapen taldeko oinarritzko maila edo gehienez bi maila gehiago daukaten lanpostuetan.
- b) Aurreko lekualdaketa lehiaketaren ostean beren lanpostua desagertu zelako edo lanpostuaren edukia ustekabeen aldatu zelako beste lanpostu bati behin-behinekoz atxikita egon diren langileek lehentasuna izango dute udalerri bereko lanpostuak esleitzean, betiere kendutako edo aldatutako lanpostuaren maila bera edo txikiagoa badu kasuan kasuko lanpostuak.

8.2.- Lanpostuak esleitzeko hurrenkera.

Lehiakideen lehentasun eskubideak aplikatu ondoren, gainontzeko lanpostuak esleitzeko kontuan hartuko dira bigarren oinarriko baremoaren arabera lortutako puntuen batura eta lehiakideen lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte.

8.3.- Berdinketarik egonez gero, honako irizpideak ezarriko dira hurrenez hurren:

- Emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego eta eskaletan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- Merezimenduetan lortutako puntuazioa, handienetik txikienera ordenaturik, deialdiko baremazioari jarraituz. Merezimenduetan ere puntu

berdinketa badago, deialdiko oinarrietan agertzen den hurrenkera aplikatuko da.

- Antzinatasun handiena karrerako funtzionario legez lehiakideak lehiaketa honetan abiapuntu duen kidego edo eskalan.
- Antzinatasun handiena karrerako funtzionario legez.
- Antzinatasun handiena azkeneko behin betiko lanpostuan.
- Antzinatasun handiena administrazioan.
- UPV/EHUko zerbitzuak ematen hasi zen data, berdinketa hausteko lehentasuna datarik zaharrena izanik.

9.- LANPOSTUEN ESLEIPENA

9.1.- Epaimahaiak, zortzigarren oinarrian zehaztutako irizpideak aplikatuta, lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamena egin eta 11. oinarrian adierazitako tokietan argitaratuko du. Hamar egun balioduneko epea irekiko du erreklamazioak aurkezteko.

9.2.- Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, epaimahaiak haiek ebatzi eta lanpostuen esleipenerako behin betiko proposamena egingo du eta UPV/EHUko gerenteari igorriko dio.

9.3.- Esleipenerako behin betiko proposamena jasota, UPV/EHUko gerenteak onartu eta 11. oinarrian zehaztutako lekuan argitaratzeko agindua emango du. Ebazpen horren kontra aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da zuzenean administrazio auzien epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

10.- LANPOSTUA JABETZAN HARTZEA ETA ESLEIPENAREN ONDORIOAK

10.1.- Lehiaketa honen bidez lanpostua lortu duen funtzionarioak lanpostuak behin betiko esleitzeko emango den ebazpenean zehaztutako egunean utziko du egungo lanpostua. Lanpostu berria aurreko lanpostua utzi eta biharamunean hartuko du jabetzan. Zerbitzu aktibora bueltatzen direnek edo administrazio honetan zerbitzurik betetzen ez dutenak jabetzan hartuko dute lanpostua gainontzeko langileentzat lanpostua uzteko zehaztutako egunaren biharamunean.

10.2.- Kidego edo eskala batean baino gehiagotan lortuz gero lanposturen bat, funtzionarioak aukeratu egingo du zein lanpostu hartuko duen jabetzan;

horretarako, bost egun balioduneko epea izango du behin betiko esleipenak argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita. Aukerarik egin ezean epe horretan, maila handieneko lanpostua nahi duela ulertuko da.

10.3.- Lanpostua gordetzeko egoeraren batean egonda lehiaketa honetan parte hartu eta lanposturen bat lortzen duten langileek, egoera administratibo horretan jarraituko dute baldin eta lanera itzultzeko eskaririk egiten ez badute, eta eskari hori egiteko, aurreko oinarrian aipatutako bost egun balioduneko epea izango dute.

10.4.- Lizentzia edo baimenen bat daukatenez, lanpostua jabetzan hartu ondoren ere, egoera horretan jarraituko dute lizentzia edo baimena bukatu arte; hala ere, langileen arloko organo eskudunak, ondo justifikatutako arrazoiak oinarri hartuta, lizentzia edo baimena bertan behera uztea erabaki dezake.

10.5.- Lehiaketa honen bidez lanpostua lortzen duen funtzionarioak ezin izango du beste lehiaketa batean parte hartu hurrengo bi urteetan. Hori ez da aplikatuko epe horren barruan funtzionarioak galdu egin badu lehiaketa honen bidez lortutako atxikipena, lanpostutik kendu egin dutelako edo lanpostua desagertu egin delako.

10.6.- Esleituko diren lanpostuak langileek eurek eskatutakoak izango dira eta, beraz, ez da egongo inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik.

10.7.- Esleitutako lanpostuei ezin izango zaie uko egin. Salbuespena izango dira lanpostuaren jabetza hartzeko eguna baino lehen lehiaketa publikoaren bidez beste lanpostu bat lortzea, ustekabeen sortutako ezintasuna, zerbitzu ez aktiboko egoerara pasatu izana edo deialdia egin duen organoak behar bezala arrazoitutako aparteko egoera bereziak. Lehiakideak horien berri eman beharko du.

11.- INFORMAZIOA ARGITARATZEKO LEKUA

Lehiaketa honen inguruko informazio guztia argitaratuko da helbide hauetan dauden iragarki oholetan:

Intraneten: Langileen Ataria.

Interneten: <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/barne-deialdiak>

Argitalpenok izango dira balioa izango duten bakarrak oinarri hauetan ezarritako epeak zenbatzerakoan. Era berean, hori izango da interesatuei jakinarazpenak egiteko era. Horrela, bada, informazioa ez da zertan beste iragarki ohol edo hedabide batzuetan argitaratu beharko.

12.- DATU PERTSONALEN BABESA HAUTAKETA PROZESUAREN GESTIOAN

12.1.- Lehiaketaren gestioan, datu pertsonalak "Lanpostuen aukeraketa eta hornitzea" eta "Langileen espedienteak" izeneko fitxategietan tratatuko dira, zeinak Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Ebazpenaz sortu ziren (unibertsitateko datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko ebazpena, 2007ko apirilaren 11ko EHAA). Bi fitxategi horien administrazio organo arduraduna Euskal Herriko Unibertsitatea bera izango da, eta bertako DBLO segurtasun arduradunarengana joko da datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko edo haien tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatu nahi izanez gero.

12.2.- Eskaria egiteko ereduari gai honi buruzko informazioa emango duen klausula bat egongo da.

12.3.- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioako langileek, epaimahaiko kideek eta horiei laguntasuna emango dieten adituek (aditurik egonez gero) isilpean gordeko dituzte lehiaketaren gestioan zehar euren eskuetara heltzen diren datu pertsonalak.

12.4.- Zerrendetan, bai behin-behinekoetan bai behin betikoetan, datu pertsonal gutxi agertuko dira, publikotasun printzipioa betetzeko beharrezko direnak baino ez. Zerrenda horiek hautaketa prozesua amaitu arte egongo dira ikusgai eta, era berean, erreklamazioak edo errekursoak jartzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora guztian.

Zerrenda horietan klausula bat jarriko da, esateko datuak pertsonalak direla, zerrendak bete egiten duela datuak babesteko indarreko legeriak dioena, eta zerrendaren helburu bakarra dela kasuan kasuko fasearen berri ematea eta parte hartzaileak jakinaren gainean jartzea. Era berean, paragrafo batean adieraziko da zerrenda horiek ez direla egongo herritarren esku; ezingo direla kopiatu, ez osorik ez zati batean; eta ezingo direla ez transmititu ez erregistratu informazioa berreskuratzeko inolako sistemarik erabilita, baldin eta interesdunek horretarako baimenik ematen ez badute.